# ADMINISTRAZIO ETA MERKATAL KUDEAKETARAKO PROZESUAK. PROGRAMAZIO LABURTUA

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **IKASTETXEAREN IZENA** | **OLABIDE IKASTOLA** | | | | | | | | | **2017 - 2018** | |
| **ARLOA / GAIA** | **KUDEAKETARAKO ADMINISTRAZIO PROZESUAK** | | | | | | | **DATA** | | | |
| **MAILA** | **DBH 1** | | **DBH 2** | | **DBH 3** | | **DBH 4** | | **1. BATX.** | | **2 .BATX.** | **X** |

| 1 | ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK |
|---|---|

1.– Enpresaren kontzeptua, izaera, motak eta helburuak ezagutu. Enpresen zereginak eta funtzioak ezagutu.

2.- Enpresaren eraketa prozesua ezagutu. Enpresaren eraketarako aurre analisia egiten ikasi. Enpresaren eraketan parte hartzen duten erakunde ezberdinak ezagutu eta Enpresa arloan zein ekintzetan suertatzen diren dokumentu erberdinak ezagutu, ulertu, eta oinarrizko mailan egoten jakin: estatutoak, memoria akta, eraketa eskritura, salmenta kontratua, hipoteka kontratua, fakturak, likidazio orria, kotizazio orriak etab.

3.- Kontabilitate teknikaren aplikazioa eta merkatal liburuen erabilera ikasi. Enpresaren aktibitate ekonomikoak Kontabilitate aldetik erregistratzen jakin. Ondarearen kontzeptua ikasi. Ikasitako kontzeptuak aplikatuz, beharrezko ondarea kalkulatzen jakin.

4.- Enpresek produktuak ekoizteko eta zerbitzuak eskaintzeko kanpotik jaso behar dituzten osagarriak identifikatzen jakin eta beren garrantzia baloratu. Hornitzaileekin sortzen diren harremanak aztertzen jakin. Kontable, zerga eta merkatal legediaren arabera erosketa prozesuak aztertzen jakin.

5.- Produkzio prozesu diseinu ezberdinak azaltzen jakin. Produkzio prozesuan faktore bakoitzak produktuaren azken kostuan duen eragitea identifikatzen eta kalkulatzen jakin.

6.- Banaketaren kontzeptua, funtzioak, banaketa kanal ezberdinak eta banaketa kostuak identifikatzen jakin.. Margenak: gordina, merkataritza margena eta portzentuak kalkulatzen jakin. Kontsumitzaileen babesa legearen ezaugarri nagusiak identifikatu. Merkataritza eragiketen kontabilizazioa egiten jakin.

7.- Erosketak eta salmentak eragiten dituzten ordainketen eta kobrantzen kontrol eta gestio zuzen batetarako tresnak ezagutu.. Diruzaintza eragiketak eta arazo finantzarioak ebazteko bankuek eskaintzen dituzten zerbitzu finantzarioak egoki erabiltzen jakin. Diruzaintzak eta finantzaketak eragiten dituzten interesak eta kostuak kalkulatzen jakin. Finantzaketa eragiketen kontabilitate-erregistro egiten jakin.

8.- Lan kontratazioa: kontratu mota ezberdinen ezaugarriak definitzen nominak, aseguru sozialak eta PFEZ atxikipenak definitzen eta kalkulatzen jakin. Giza baliabideen inguruan sortzen diren eragiketen kontabilitate-erregistroak egiten jakin. Langileen nomina bat egiten jakin.

9.- Beste ohiko gastu eta sarrerak: kanpo zerbitzuen eta finantza sarreren kontzeptua definitu eta eragiketa kontabilitate egiten jakin. BEZaren likidazio periodikoak: kontuen konpentsazioen kontzeptua definitu eta eragiketa kontabilitate egiten jakin. Ibilgetuaren amortizazio prozeduren kontzeptua definitu eta kontabilitate-eragiketa egiten jakin. Ibilgetuaren elementuen salmenten kontzeptua definitu eta kontabilitate-eragiketa egiten jakin. Hornidurak: arriskuak eta gastuak, balorazio zuzenketak, izakinen balio-galera egoeren kontzeptua definitu eta kontabilitate-eragiketa egiten jakin. Ekitaldiaren itxiera eta kontabilitateren-erregularizatze prozedura: gastuen eta sarreren periodifikazioaren, izakinen aldaketen, datu kontableen aldaketen, emaitzaren erabakiaren, mozkinen banaketaren, ekitaldiaren itxieraren kontzeptua definitu eta eragiketa kontabilitate egiten jakin. Urteko kontuak: Balantzearen, Galeren eta Irabazien kontuaren kontabilitate-eragiketa egiten jakin.

10.- Aukerazko helburua: MMT Simuladore baten bidez enpresa bat kudeatu. Inbertsioen, ekoizpen zein banaketen eta salmenten inguruan erabakiak hartuz beste enpresa batzuekin lehiatu, ahalik eta mozkin gehienak lortzen saiatuz Young Business Talents lehiaketan parte hartuz.

| 2 | EDUKIEN DENBORALIZAZIOA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1. ebaluazioa | | 2. ebaluazioa | | 3. ebaluazioa |
| 14 | Ondarea. Inbentarioa. Kontabilitatea: Kuentak: konzeptua, errepresentazioa eta anotazioak. Partida bikoitzaren sistema. Kontabilitate liburuak: Egunkari Liburua, Liburu Nagusia, Inbentario eta Urteko Kuenten Liburua. Legezko araudia. Kontabilitatearen Plangintza Orokorra. | 14 | Beste ohiko gastu eta sarrerak: kanpo zerbitzuak eta finantza sarrerak. BEZaren likidazio periodikoak: kontuen konpentsazioak. Ibilgetuaren amortizazio prozedurak: motak eta erregistroa. Ibilgetuaren elementuen salmenta: eragiketa kontabilitate. Probisioak.<br><br>Balio erantsiaren kontzeptua eta Balio Erantsiaren Zergaren likidazioa BEZ. | 14 | Banaketa. Marketing: enpresaren merkataritza politika. Margenak: gordina, merkataritza margena eta portzentuala. Merkataritza eragiketen kontabilizazioa.<br><br>Oinarrizko finantzaketako Inbertsioak: Bonoak eta obligazioak. Erregistro kontabilitateak, sortzapenak, denoboralizazioak, merkatu balioa eta balio kontable netoa. |
| 14 | Hornitzaileak. Erosketa prozesuak.Izakinak: klasifikazioa, biltegia, inbentario metodoak eta stocken kudeaketa eta kontrola. Ordainketa prozesua.Hornikuntza prozesuen kontabilizazioa | 14 | Banku bitartekari finantzarioak. Interesak: kontzeptua, interes arruntaren eta konposatuaren formulak, urtez azpiko epeak, urteko tasa balikidea (UTB). | 14 | Merkataritza efektoak. Merkataritza Deskontuak, zalantzazko bezeroak eta ez ordaintzeak. Erreklamazioak erregistratu kontuetan. Hornidurak egin<br><br>Biltegiko baliogaleren hornidurak.<br><br>Moneta trukeak. Erregistroak |
| 14 | Diruzaintza gestioa enpresan: diruzaintzaren aurreikusia, efektuak, ezordaintzeak, ordainketen eta kobraketen aldaketak. Finantzaketa eragiketen erregistro kontabilitate. | 14 | Ekitaldiaren itxiera eta erregularizazio kontabilitateren prozesua. Balantzea, Galerak eta Irabaziak kontua eta Memoria | 14 | Pertsonal departamentua. Lanaren oinarrizko legedia: Langileen Estatutua, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra. Giza baliabideen eragiketen erregistro kontabilitate.<br><br>Enpresa motak ezberdinak. Enpresen forma juridikoak. Enpresen barne egitura. Baimenak eta lizentziak: Lizentzia eskakizuna: 411 eredua, Jarduera ekonomikorako Zergan alta: 845 eredua, Zentso Aitorpena: 037 eredua, Erosketen liburua, Inbertsio ondasunen eta amortizazioen erregistroa, Salmenten liburua, Gizarte Segurantza Erregimenen alta: TA. 0521/A eredua.. |

| 3 | METODOLOGIA |
|---|---|

Azalpen espositiboak egiten dira eta ondoren praktika ariketetan oinarritzen da ikaste prozesua, azalpenak instrukzioak dira, arauak eta teknika. Praktikan oinarritzen da ikaste prozesua,ariketen egitean. Ariketen egitearen inguruan sortzen diren beste hainbat zalantzen inguruan azalpenak ematen dira.

Adibideak eta baliabideak internetetik (kontratu ereduak, akta ereduak,, estatutuak, eraketa eskritura... balantzeak...) jasoko dira. Lan taldeetan egingo da lana eta garrantzi handia emango zaie aurkezpen saioei, gaitasun haiek trabatu ahal izateko edukiaz gain.

Bilboko Merkataritza Ganberako Unbertsitate eskolan saioetan Marketinaren inguruan kasu praktikoa egingo da.

Kontabilitaterako Gabilos irakaskuntza programa erabiliko dugu ikasitakoa informatikoki aplikatzeko.

Young Business Talents lehiaketan parte hartuko da taldeak enpresak osatuz eta merkatuan lehiatuz bi produkturekin. Datuak aztertzeko, interpretatzeko eta erabakiak hartzeko konpetentzia izango da landuko dena enpresa egoera erreal bat simulatuz.

| 4 | BALIABIDEAK |
|---|---|
| Kontabilitatearen plan Orokorra<br>Gabilos. Kontabilitatearen irakaskuntzarako programa<br>MMT-PRAXIS simulagailua YBT lehiaketan | Contabilidad y fiscalidad. Ed McGrawHill<br>Introducción a la Contabilidad. Grado de ADE. Business School. Universidad de Deusto |
| **TESTU LIBURUA:** | **ARGITALETXEA:** |

| 5 | EBALUAZIOA: TRESNAK, EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK |
|---|---|

Kontzeptuak eta prozedurak batera ebaluatuko dira eta eskolan eguneroko lana eta jarraipena ebaluatuak izango dira.

Ebaluaketa bukaeran azterketa bat egingo da, ebaluaketa horretan landu dugun guztiarekin baina bere balioa notaren %20 izango da, beste % 80 klasean egindako lanak erabakiko du.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA** | **KONTZEPTUAK** | **10** | **PROZEDURAK** | **70** | **JARRERAK** | **20** |

| 6 | BERRESKURAPEN SISTEMA |
|---|---|

1. eta 2. ebaluazioak jarraiak izango dira. 2. ebaluazioak eta 3.ak errekuperazio izango dute. Ikasturtea amaitu ondoren, ikasleak ez badu kurtsoa gainditu nahikotasun azterketa bat izango du.

Nota igotzeko aukera egongo da kurtsoa amaieran, beti ere lana eta saiakera erakutsi badira kurtsoan zehar.

# PROGRAMACIÓN ABREVIADA

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| NOMBRE DEL CENTRO | | | | | | | | | | 200 - 200 | |
| ÁREA / MATERIA | | | | | | | | FECHA | | | |
| CURSO | 1º ESO | | 2ºESO | | 3ºESO | | 4ºESO | | 1ºBACH. | | 2ºBACH. | |

| 1 | OBJETIVOS MÍNIMOS DE LA MATERIA |
|---|---|
| | |

| 2 | TEMPORALIZACIÓN DE CONTENIDOS | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1ª evaluación | | 2ª evaluación | | 3ª evaluación |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | |

| 3 | METODOLOGÍA |
|---|---|
| | |

| 4 | RECURSOS |
|---|---|
| | |
| LIBRO DE TEXTO: | EDITORIAL: |

| 5 | EVALUACIÓN: INTRUMENTOS, CRITERIOS DE EVALUACIÓN Y CALIFICACIÓN |
|---|---|
| | |

| VALOR PORCENTUAL DE LAS CALIFICACIONES | CONCEPTOS | | PROCEDIMIENTOS | | ACTITUDES | |
|---|---|---|---|---|---|---|

| 6 | SISTEMA DE RECUPERACIÓN |
|---|---|
| | |